



GURASOEN EBALUAKETAREN EMAITZAK

**2012-2013KO HASIERAKO GALDEKIZUNEN ETA 2014-
2015EKO BUKAERAKO GALDEKIZUNEN ARTEKO
ALDERAKETA**

EMAITZA KUANTITATUBOAK ETA ONDORIOAK

(Erretereria)

Galtzagorri Elkarte
2015eko iraila



SARRERA

- Txosten honetan Erreterian jasotako gurasoen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazioa 2012-2013 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtera egitasmoan parte hartu duten haurren gurasoei egin zaie. Alegia, 2012-2013an 3 urte zituzten eta 2014-2015an 5 urte zituzten haurren gurasoei.
- Ebaluazioa 2014-2015. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan eginda.

BUKAERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA

- Bularretik Mintzora egitasmoaren baitan burutzen diren ekimenen eragin kuantitatibo zein kualitatiboa aztertu.
Jakin nahi da, egitasmoa herri horietan abian jarri zenetik zer nolako aldaketak eman diren gurasoen iritziz, haurren irakurketa ohituretan, hiru esparruetan: eskolan, etxean eta liburutegian.
- Bularretik Mintzora egitasmoak antolatu dituen formazio ekimenak baloratzea.
- Bularretik Mintzoraren baitan sortutako materiala baloratzea: gomendatutako liburu-ipuinak, CD-ak, foiletoak, esku orriak,...

GALDEKIZUNEN BANAKETA

Bidalitako galdekizunak	Jasotako galdekizunak
236	124(%52)

METODOLOGIA

- Bukaerako egoera ebaluatzeko, gurasoei galdekizun bat pasa zaie. Honetan, 5 aldagai orokor kontutan hartu dira:

1. Irakurketarekiko jarrerak

- Ikasketetarako
- Aisialdirako

2. Irakurketa ohiturak

- Ohitura finkoak edukitzea
- Ipuinak kontatu seme-alabei
- Nork kontatzen du ipuina

3. Kontakizunerako baliabideak

- Ipuina kontatzeko erabiltzen diren baliabideak

4. Haur Literaturen ezagutza

- HLko baliabideak zein adinetarako diren informazio egokia

5. Liburutegiaren erabilpena

- Liburutegira joatea (maiztasuna)
- Liburutegian maileguaren erabilpena eta baliabide mota

6. Bularretik Mintzora egitasmoaren materialaren balorazioa

7. Bularretik Mintzora egitasmoaren eragina harreman afektiboan



- Bukaerako galdekizunak, guztira 10 galdera ditu.
- Galdekizunak 3 ikastetxeetan banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen diren bukaerako emaitzak, 2014-2015. ikasturteko hirugarren hiruhilekoan lortu dira eta 2012-13. ikasturtean jasotako hasierako emaitzekin konparatu dira.
- Ondoren, atalez atal, aurkezten dira emaitzak.




EMAITZA KUANTITATIBOAK ETA ONDORIOAK

(ERRETERIA)

1. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK

1.1. Onuragarria ikasketarako




Orain guraso guztiek uste dute irakurketa onuragarria dela ikasketarako eta aisialdirako **(%2a hazi da)**

Hasierako emaitzekin konparatuz, orain guraso guztiek uste dute (**%100ak**) irakurketa ikasketara nahiz aisialdirako onuragarria izango dela seme-alaben bizitzan. Kuantitatiboki, aldagai honen hobekuntza, urria dirudien arren (%2a – ikasketarako -eta %1a – aisialdirako -), kontuan izan behar da, hasieran, %98 /%99akjarrera hori azaltzen zuela. Beraz, datu hau ezin hobea da.

Ondorioa: *Emaitza horiek adierazten dute Bularretik Mintzorako helburuetariko bat lortu dela neurri handi batean; irakurketak haurren bizitzan duen garrantzia gurasoei azpimarratzea, hain zuzen ere. Irakurketaren onurak aisialdirako zein ikasketarako parekatzea aurrerapen handia da jarrera aldetik haurren irakurzaletasuna suspertzerakoan.*

2. IRAKURKETA OHITURAK

2.1. Ohitura finkoak edukitzea




% 12 guraso gutxiago dira orain irakurtzeko ohitura finkoak dituztenak

Aldagai honetan, atzerapen bat izan da. Orain, %12 guraso gutxiago dago irakurtzeko ohitura finkoak dituztenak. Emaitza hau era honetan interpreta dezakegu: seguru asko, bukaerako galdekizuna erantzun duten guraso askok, BMko egitasmoaren helburuak, edukiak eta formazio saioak ez dituzte jaso edo / eta guraso kopuru batek, behintzat orain, irakurketa ohituraz galdetzerakoan, erantzuna hauraren ohituretara bideratu du. Dena dela, emaitza hau ez da logikoa, irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoak nekez lor dezakeelako bere aurka doan lorpen bat.

Ondorioa: *Emaitza honek, garbi eta argi adierazten digu, bukaerako galdekizuna erantzuten duten gurasoek baldintza hauek bete beharko lituzketela: egitasmoaren berri edukitzea, zeintzuk diren bere helburu eta ekintzak jakitea eta, ahal bada, egitasmoaren hainbat ekintzetan parte hartu izana (hitzaldi edo tailerretan, irakurketa klubetan, ...).*

2.2. Ipuinak kontatu seme-alabei




% 10 gutxiago dira orain haurrari etxean, ia egunero, ipuinak kontatzen dizkietenak

Aldagai honetan ere, aurrekoarekin gertatu den bezala, orain “ia egunero” ipuina kontatzen duten gurasoen kopurua **%10** txikiagoa da. Emaitza honen esanahia aurrekoaren berbera izan daiteke. Egitasmoaren helburu garrantzitsu baten aurka doa. Horregatik ere, ez da emaitza logiko bat eta galdekizuna erantzuterakoan gurasoen laginaren hautaketan legoke emaitza ezkor honen arrazoi garrantzitsuenetakoa.

Ondorioa: *Lor dezakegun ondorioa aurrekoaren berbera izan daiteke, hau da, bukaerako galdekizuna erantzuteko aukeratzen den gurasoen lagina egitasmoan “murgilduta” dagoela bermatu behar da.*

2.3. Nork kontaktzen du ipuina



- Oraindik ere, kontakizunaren jarduera gehienbat emakumeen esku dago
- Hala ere, orain ipuina kontaktzen duten gizonezkoen (aitak) kopurua igo egin da: **%6 gehiago** dira orain


Hasierako emaitzekin konparatuz, orain gizonezko gehiago dira (aitak) ipuina kontaktzen dutenak, **%6** gehiago hain zuzen ere. Hala ere, kontakizunaren jarduerak emakumeen eskuetan jarraitzen du: **%80etan** amak kontaktzen du eta **%53tan**, aitak; hau da **%27 gehiago** amen alde.

Ondorioa: *Nahiz eta aldagai honetan hobekuntza izan den, gizonezkoek kontakizunetan gehiago parte hartzen dutelako, oraindik urrun daude emakumeekin parekatzeko.*

Jarduera hau, ipuina kontatzearena, hezkidetza edo berdintasun arloko jardueren artean dagoenez, gizartearen joeraren isla da. Zentzu honetan, gizonezkoen parte hartzea handitu beharko litzateke, gurasoen formazioan, alderdi honen garrantzia azpimarratuz.

3. KONTAKIZUNERAKO BALIABIDEAK

3.1. Ipuina kontatzeko erabiltzen diren baliabideak



- Orain, ahozko kontaktak **%15 gehiago** erabiltzen dira.
- Aldiz, ikusteko baliabideak **%38 gutxiago** erabiltzen dira.

Ipuina kontatzerakoan, gurasoek estrategiak nabarmen aldatu dituzte. Hasieran, gehienbat, ikusteko baliabideak erabiltzen zituzten: liburuko irudiak erakutsi eta komentatu, gehienbat (**%70ak**). Orain, **%32ak** erabiltzen ditu estrategia horiek.

Aldiz, orain, ahozko kontaktaren barruan sartzen diren estrategiak erabiltzen dituzte gehienbat: **%68ak** erabiltzen ditu, hain zuzen ere; ahozko kontaktak eginez soilik edo/eta testua liburutik irakurriz.


Hau da, ipuina kontatzerakoan, gurasoek erabiltzen dituzten baliabideen lehentasuna zeharo aldatu da, ahozkoak ikustekoen gainetik nabarmen jarritz.

Ondorioa: *Emaitza hau oso positibotzat har dezakegu, ahozkotasunaren alde dagoelako. Orokorrean gurasoengana iristen ari da honen garrantzia. Zentzu horretan, egitasmoa, helburu horrekin bereziki sortu dituen baliabideak (CDak, ipuin zerrendak, ...) eragin baikorra lortzen ari direla dirudi.*

Gurasoekin egiten diren formazio saioetan ere ildo hau azpimarratzen da.

4. HAUR LITERATURAREN EZAGUTZA

4.1. HLko baliabideak zein adinetarako diren informazio egokia



- Orain, **%67ak** haurren adin tartearentzat egokia den Haur Literaturari buruz nahiko informazioa du, **%9 gehiago**

Bukaerako emaitzek adierazten duten bezala, orain gurasoen **%67ak** “nahiko informazio” du, hasieran baino **%9** gehiago. Zentzu honetan, aldagai hau hobetu da.


Ondorioa: *Bularretik Mintzora* egitasmoaren helburuetariko bat, gurasoek duten Haur Literaturari buruzko informazio maila areagotzea, betetzen ari da.

Egitasmoaren baitan banatzen diren bibliografiak, gomendioak, eskuorriak eta bestelako informazioak gurasoengana iritsi direla ondorioztatu daiteke, orain gurasoek, baliabideen adin egokitasunaz informazio gehiago dutela erantzun baitute.

*Hala ere, oraindik **%33ak** ez duela “informazio egokirik” dio, informazioa gehiago hedatzen jarraitu behar denaren seinale.*

5. LIBURUTEGIAREN ERABILPENA

5.1. Liburutegira joatea (maiztasuna)



- Gutxienez hamabostero seme-alabekin liburutegira joaten direnak **%4 gehiago** dira orain


Bukaerako ebaluazioaren emaitzek azaltzen duten bezala, hasierakoekin konparatuz, nahiz eta txikia izan, hobekuntza gertatu da. Ebaluatuek izan diren gurasoen artean liburutegietara joateko ohitura sortu edo, maiztasun aldetik, ugaritu egin da (hasieran baino **%4a** gehiago).

Aldagai honen hobekuntza txikiaren arrazoiak, galderaren formulazioan dago: “Seme-alabekin liburutegira joateko ohiturarik ba al duzu, **gutxienez hamabostero?**”. Baiezkoa erantzun dutenek, gutxienez maiztasun horrekin joaten direla onartzen dute. Horregatik, guraso gehiago izan daitezke ohitura berri honi heldu diotenak, nahiz eta oraindik gutxienerako maiztasun horrekin liburutegira ez joan.

Ondorioak: *Irakurtzeko zaletasuna suspertzerakoan ezaugarri garrantzitsuenetariko bat liburutegiaren erabilpena denez, argi dago, Bularretik Mintzora egitasmoak liburutegietara erakarri dituela guraso eta haurrak, erabiltzaile berriak eginez. Zentzu honetan, helburua lortzen ari da.*

Egitasmoak duen hurrengo erronka liburutegietara joatearen maiztasuna gehiago areagotzea litzateke. Horretarako, gurasoen eta liburutegien arteko harremanak ugaritu beharko lirateke, adibidez, Irakurketa Kluberako deialdi bereziak eginez, BM maletetako ipuin berrien zerrendak gutun edo emailez jakinaraziz, ...

5.2. Liburutegian maileguaren erabilpena eta baliabide mota



- Orain ere **ipuinak** dira gehien mailegatzen direnak, lehen baino **%5 gehiago**
- **Bideo, DVD eta joko interaktiboak** mailegua **%40 gutxitu** da
- **Hitz jokoak, haur kantak, aho korapiloak eta haur poesiaren** mailegua, orain **%1** da, lehen baino **%4 gutxiago**

Mailegatzen den baliabide motari dagokionez, aldaketa nabarmen batzuk gertatu dira. Ipuinak dira orain ere gehien mailegatzen direnak (**%94a**).

Teknologia berriekin zerikusia duten baliabideen mailegua (Bideoa, DVDak eta joko interaktiboak), ipuinen maileguarekin konparatuz, oso txikia da orain, **%5ekoa** bakarrik, hasieran baino **%40 urriagoa**.


Azkenik, hitz joko, haur kanta eta haur poesiaren mailegua **%4an gutxitu da**. Oso urria da, **%1ak** bakarrik mailegatzen baitu.

Ondorioa: *Bularretik Mintzora egitasmoaren ekintza zehatz bat mailegua suspertzea da. Zentzu honetan, emaitza horien ondorioz, bi balorazio ezberdin egin ditzakegu; Ipuinen maileguaren hobekuntza positibotzat har dezakegu. Motxila Txikien eraginez izan daiteke; ekintza honek eskola, etxea eta liburutegia lotzen ditu, eta familia bakoitza urtean pare bat aldiz pasatzen da liburutegitik liburu bat maileguan eramateko. Honek maileguak eta liburutegiko bazkideen kopuruak ugaritu egin ditu noski.*

Aldi berean, teknologia berriarekin zerikusia duten baliabideen mailegua asko gutxitu da, %40 hain zuzen ere. Emaitza hau oso baikortzat har dezakegu, ipuinaren eta orokorrean, haur literaturaren alde egiten duelako.

Aldiz, hitz joko, haur kanta, aho korapilo eta haur poesiaren maileguaren emaitzari dagokionez, atzera pauso bat gertatu da: %4ak mailegatzen zituen lehen; eta %1ak bakarrik mailegatzen ditu orain. Garbi geratzen da oraindik ez duela izan behar duen erantzunik guraso eta haurren partetik. Egitasmoaren helburu garrantzitsuetako bat ahozkoatasunarekin zerikusia duten haur literaturako baliabideak haurren suspertzea da. Horregatik, helburu hori lortzeko estrategia berri batzuk abian jarri behar dira.

6. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN MATERIALAREN BALORAZIOA




- **%70ak** gomendatutako liburu-ipuina **onak** direla dio eta **%9ak oso onak** direla
- **%62ak** Bularretik Mintzorako CDak **onak** direla dio eta **%4ak oso onak** direla
- **%67ak** foiletoak, gomendioak, esku orriak, ... **onak** direla dio eta **%5ak**, aldiz, oso onak direla

Guraso gehienek ondo baloratzen dituzte Bularretik Mintzora egitasmoak sortu dituen Haur Literaturako baliabideak eta materialak; **%72ak**, orokorrean, onak direla dio eta **%28ak**, normalak direla. Ez dago "txarrak" bezala baloratzen dituen gurasorik.

Ondorioa: *Irakurzaletasuna sustatzerakoan materiala erakargarria izatea ezinbesteko baldintza da, eta, zentzu honetan, helburua betetzen ari da. Gomendatu diren liburu-ipuinek balorazio zertxobait hobea lortzen dute, CD, foileto eta esku orriekin konparatuz.*

7. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN ERAGINA HARREMAN AFEKTIBOAN



- **%41ak** dio Bularretik Mintzora egitasmoan hasi zirenetik, orain haurrarekin dituen harreman afektiboak hobetu direla
- Aldiz, **%59ak** dio seme-alabarekin dituen harreman afektiboak ez direla hobetu

Aldagai honetan lortu diren emaitzak baikortzat ere eman ditzakegu: 10 gurasotatik 4k, arrazoi ezberdinengatik, onartzen duelako egitasmoan parte hartzen hasi zirenetik haurrarekin dituzten harreman afektiboak hobetu direla.

Ondorioa: *Bularretik Mintzora egitasmoaren helburuetariko bat, irakurketaren bidez guraso eta haurren arteko harremanak hobetzea da, irakurketa, jarduera moduan, bizipen afektibo eta emozionala bilakatuz; azken finean, harreman afektiboak hobetuz. Zentzu horretan, helburu hau lortzen ari gara.*

Hala ere, beste %59 bat gelditzen da, helburu hori lortzeko. Horiekin arlo hau azpimarratu behar da, guraso formazioetan edo/eta egitasmoak eskaintzen dituen ekintzetan.

8. EGITASMOAREN ALDAGAIETAN IZAN DUEN HAZKUNDEA

Gurasoen bukaerako ebaluazioaren emaitzak aztertu eta ondorioak atera ondoren, ebaluatuak izan diren Errenteriako ikastetxeetan, *Bularretik Mintzora* egitasmoak lortu duen hazkundera, aldagaien arabera, honakoa izan da:

1. Bukaerako ebaluazio honetan kontuan izan diren irakurzaletasuna definitzen duten **9 adierazleen** aldakortasuna, orokorrean, positiboa izan da.

Hobekuntza nabarmena izan duten aldagaiak:

- Irakurketarekiko jarrerak (haurarentzat onurak)
- Ipuina nork kontaktzen duen (aitaren inplikazioa)
- Ipuina kontaktzeko baliabideak (ahozkoak)
- HGLko baliabideen adin egokiaren informazioa
- Ipuina kontaktzearen maiztasuna
- Maileguaren baliabide mota
- Harreman afektiboaren eragina

Hobekuntzarik izan ez duten aldagaiak:

- Gurasoen irakurketa ohitura finkoak
- Ipuinak kontatu ia egunero seme-alabei

Horrela, 9 aldagaietatik, **7tan** hobekuntza nabarmena izan da.

Ondorioa: *Ebaluatuak izan diren Errenteriako familietan, irakurzaletasuna finkatzen ari dela esan daiteke. Dena dela, hobekuntzarik izan ez duten aldagaien zergatiak argi ez daudenez, horietan gehiago aztertu eta sakontzeko beharra dago, bukaerako ebaluazioa egin behar duen guraso-lagina egokiena dela bermatuz edo/eta aldagai horiek aztertu nahi dituzten galderak aldatuz.*

Beraz, BM egitasmoak familiaren esparruan eragiten jarraitu behar du eta alderdi hori indartu behar du irakurzaletasuna hurrengan finkatzen jarraitu nahi badu.